


Año LIV. urtea
133 - 2022
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Pertsona murriztapenak
ditu egitura inpertsonalak:
euskararen kasua**

Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 133. zk. - 2022

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa
Ander Egurtzegi 9

Paul Broca, garunetik hizkuntzara euskararen bideetatik
Joanes Atxa Olaiz 37

Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera)
Koldo Artola 61

Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran
Maite Luengo Aguirre 115

Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua
Idoia Granizo Uribarrena 131

Euskal doinuaren ulermena: Markinako galderak eta baieztapenak
Izaro Bedialauneta Txurruka, Jennifer Zhang, José Ignacio Hualde 159

Pertsona murriztapenak ditu egitura inpertsonalak: euskararen kasua
Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández 191

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)
Ane Irizar Melero 223

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak)
Ekaitz Santazilia 229

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals 259

Pertsona murriztapenak ditu egitura inpertsonalak: euskararen kasua

Las construcciones impersonales tienen restricciones de persona: el caso del euskera

Impersonals have person restrictions: the case of Basque

Ane Odria

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

ane.odria@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-9636-4161>

Ane Berro

Deustuko Unibertsitatea

ane.berro@deusto.es

<https://orcid.org/0000-0002-6818-506X>

Beatriz Fernández

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

beatriz.fernandezf@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-7632-7777>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv133.7>

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du IT1169.19 ikerketa proiektuaren bidez eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarena PGC2018-096380-B-100 ikerketa proiektuaren bidez. Hala-ber, eskerrak eman nahiko genizkieke *FLV* aldizkariko bi berrikusle izengabeei lan honen lehen idatzaldian egindako zuzenketa eta iruzkinengatik, baita lan honetan jasotzen diren zenbait adibideren inguruko juzku gramatikalak eman dizkiguten hainbat hitzuni ere.

Jasotze data: 2022/01/03. Behin-behineko onartze data: 2022/04/28. Behin betiko onartze data: 2022/05/18.

LABURPENA

Lan honetan, euskarazko inperzonalek pertsonari dagokionez erakusten dituzten murriztapenak arakutzen dira, hots, kanpo argumentuaren pertsona baldintza eta barne argumentuaren pertsona murriztapena. Inperzonaletako kanpo argumentua Boz buruaren espezifikatzaile gunean kokatzen den *pro* izenordain isila dela proposatzen dugu, [+gizaki] interpretazioa izan behar duen DS bat. Bestetik, inperzonaletako kasu eta komunztadura harremanak iragankorretakoak baino murriztagoak direnez, Boz burua defektiboa dela aldarrikatzen dugu. Hori dela eta, kanpo eta barne argumentuak Denb buruarekin egin behar dute komunztadura, eta horrek barne argumentuaren pertsona murriztapena eragingo du.

Gako hitzak: euskara; inperzonalak; argumentu inplizituak; pertsona murriztapena.

RESUMEN

En este artículo exploramos las restricciones de persona que presentan las impersonales en euskera: la condición de persona del argumento externo y la restricción de persona del argumento interno. Proponemos que el argumento externo de la impersonal es un pronombre vacío *pro*, un SD interpretado como [+humano]. Este argumento se sitúa en el especificador del núcleo Voz. Además, defendemos que el núcleo Voz de las impersonales es defectivo, lo que explica que las relaciones de caso y concordancia sean más restrictivas que en las transitivas. En consecuencia, tanto el argumento externo como el interno deben concordar con el núcleo T(iempo), dando lugar a la restricción de persona del segundo.

Palabras clave: euskera; impersonales; argumentos implícitos; restricción de persona.

ABSTRACT

In this paper we explore the person restrictions that the impersonal construction presents: the person condition of the external argument and the person restriction on the internal argument. We propose that the external argument of the impersonal is a silent pronoun of DP category (*pro*) that must be interpreted as [+human]. This argument is located at the specifier of Voice. Additionally, we also argue that Voice is defective in impersonals and that this explains the restricted case and agreement relations of the construction. Since Voice is defective, both the external and the internal arguments must Agree with T(ense), which causes the person restriction on the internal argument.

Keywords: Basque; impersonals; implicit arguments; person restrictions.

1. SARRERA. 2. KANPO ARGUMENTU INPLIZITUAREN IZAERA SINTAKTIKOA. 2.1. Kanpo argumentua syntaxian ere islatzen da. 2.2. Singularra edo plurala, baina beti pertsona (+gizakia). 2.3. Kanpo argumentua DS bat da. 3. BARNE ARGUMENTUAREN PERTSONA MURRIZTAPENA. 4. PERTSONARI LOTUTAKO BI GERTAKARIAK BATZEN: ANALISI SINTAKTIKOA. 4.1. Egitura iragankorra: bi argumentu, bi buru komunztadura egiteko. 4.2. Inpertsonala: bi argumentu, buru bakarra komunztadura egiteko. 5. PERTSONA MURRIZTAPENAK BADU BERE SAIHESBIDEA. 5.1. Datibodun inpertsonalak: zenbait adibide. 5.2. Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko lotura. 5.3. Datiboa nondik? Anlisi sintaktikoa. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Lan honek euskarazko inpertsonalen izaera sintaktikoa arakatzea du xede. Euskarazko inpertsonala, predikatuaren argumentu egitura gorabehera, morfologikoki egitura iragangaitz gisa itxuratzen da eta zenbait murriztapen azaleratzen ditu pertsonari dagokionez (Albizu, 1997c, 2001; Berro et al., 2022; Fernández & Berro, 2021; Ortiz de Urbina, 1989, 1991, 2003, 2011-2019)¹. Lan honetan, murriztapen horiek aztertu eta azalduko ditugu: alde batetik kanpo argumentuaren pertsonari dagokion baldintza, eta bestetik, barne argumentuak pairatzen duen pertsona murriztapena (beste hizkuntza batzuetarako, ikus D’Alessandro, 2004; Mendikoetxea, 2008).

Egitura inpertsonala diogunean, (1) bezalakoez ari gara.

(1) Liburu horiek erraz saltzen dira.

(1) adibidean, ageriko argumentu bakarra dago, *liburu horiek*, hots, *saldu* predikatuaren barne argumentua². Kanpo argumentua, berriz, inplizitua da halaberrez eta

1 Lan honetan (1) bezalako egiturak inpertsonaltzat hartuko baditugu ere, *erdipisibotzat* ere hartu izan dira (Brettschneider, 1979; Ortiz de Urbina, 2006; Rezac, 2009a; de Rijk, 2008). Fernándezi eta Berrori (2021) eta Berro eta besteri (2022) jarraikiz, *inpertsonal* deitura erabiliko dugu, hautu hau eztabaidagarria izan daitekeen arren.

2 Gure analisisan aditz iragankorretatik sortzen diren egitura inpertsonalak aztertuko ditugu, lan honen helburu nagusia kanpo argumentu inplizitua ageriko barne argumentuarekin agertzen denean sortzen diren murriztapenak azaltzea baita. Dena dela, irakurleak jakin beza egitura inpertsonalean aditz iragangaitzak ere ager daitezkeela, hots, argumentu bakarreko aditzak, inergatiboak eta, neurri txikiagoan, inakusatiboak (Fernández & Berro, 2021; Ortiz de Urbina, 2003).

ez da morfologikoki itxuratzen, ez ageriko DS gisa ezta aditz laguntzailean ergatibo komunztadura eraginez ere. Hala, (1) adibidean, aditz laguntzaileak *liburu horiek* barne argumentuarekin baino ez du komunztadura egiten, absolutibo komunztaduraren bitartez (*dira*). Hortaz, argumentu biko predikatua dena argumentu bakarrekoa balitz bezala azaltzen da morfologikoki, eta iragangaitzutako egitura izaki, *izan* aditz laguntzailea hautatzen da.

Morfologikoki iragangaitza izanik, egitura inpertsonalek predikatu inakusatiboekin osatutako perpausen antza hartzen dute, azken hauek ere, sintaktikoki iragangaitzak direnez, morfologikoki iragangaitz gisa azaltzen baitira. (2) adibidean, esaterako, *erori* predikatuarekin osatutako perpaus bat ikus dezakegu, morfologikoki (1) adibidean eman dugun inpertsonalaren itxura bera duena. Predikatu honek absolutibo kasu eta komunztaduradun barne argumentua baino ez du eskatzen (*liburu horiek*), eta predikatuaren argumentu egiturari begira espero izatekoa denez, *izan* aditz laguntzaile iragangaitza hautatzen da (2).

(2) Liburu horiek erraz erortzen dira.

Horrenbestez, morfologikoki behintzat egitura inpertsonalak predikatu iragangaitzeekin sortutako perpausen antza hartzen duela ikus dezakegu: argumentu bakarra ahoskatzen da (barne argumentua), *izan* aditz laguntzailea hautatzen da, eta absolutiboari dagozkion kasu eta komunztadura markak baino ez dira islatzen.

Hori dela eta, inpertsonaletan ezinezkoa izaten da inplizitua den kanpo argumentua lehen, bigarren edo hirugarren pertsonakoa ote den jakitea, ezta numeroari dagokionez singularra edo plurala den jakitea ere, kanpo argumentu horren interpretazioa arbitrarioa baita; gizaki gisa interpretatu behar da, gizaki hori nor den jakin ezin den arren.

Bada, beraz, inpertsonaletako kanpo argumentuari dagokionez begi-bistakoa den ezaugarri bat, egitura inpertsonalek pertsonarekiko duten lehen lotura islatzen duena: kanpo argumentu inplizituak pertsona, edo nahiago bada, gizakia izan behar du ezinbestean (Berro et al., 2022; Rodet, 1992). (1) adibidera joaz, liburuak saltzen dituen pertsona bat izan behar da, hots, gizaki bat. Halaxe gertatzen da baita (3)ko adibidean ere.

(3) Liburu horiek erraz irakurtzen dira.

Kontuan hartu behar da, gainera, kanpo argumentuaren pertsona izaerari lotutako baldintza hau ez dela ezinbestean predikatuari egotz dakiokkeen betekizun bat. Baldintza berbera betetzen da kanpo argumentu bizigabeak ere onartzen dituzten aditzekin ere. *Ekarri* bezalako aditz batek, adibidez, pertsona bat izan dezake kanpo argumentu gisa, baina baita pertsona edo gizakia ez den elementu bizigabe bat ere, *ura* edo *haizea* esaterako (4). Hori bai, (5) adibideak erakusten duenez, halako aditzekin ere egitura inpertsonalean kanpo argumentu inplizitua pertsona gisa baino ezin da interpretatu. (5) bezalako adibide batean ezinezkoa da enborrak ekarri dituen *ura* edo *haizea* izatea; (4)ko aukeren artean, *langilea* izango litzateke kanpo argumentu gisa interpretatzeko aukera bakarra.

- (4) Langileak/urak/haizeak ekarri ditu enbor horiek honaino.
 (5) Enbor horiek honaino ekarri dira.
 [Langileak/*urak/*haizeak ekarri ditu enbor horiek honaino]

Horrez gain, inpertsonalek badute pertsonari lotutako beste murriztapen bat ere, barne argumentuak ezin baitu lehen edo bigarren pertsonakoa izan, hirugarren pertsonakoa (eta normalean bizigabea) izan behar du nahitaez (Berro et al., 2022; Euskaltzaindia, 1987; Fernández & Berro, 2021; Ortiz de Urbina, 2003; Rezac, 2009a, 2016; de Rijk, 2008, 279.-280. or.; Rodet, 1992). Hori dela eta, (6) bezalako perpausak gramatikalak badira ere, ez da gauza bera gertatuko (7)ko adibideekin. (7)ko adibideak ez dira gramatikalak interpretazio aktibo batekin, alegia, baten batek *ni* edo *zu* hondoratzea eragin duela ulertzen badugu.

- (6) Itsasontzia hondoratu zen.
 (7) a. #Ni hondoratu nintzen.
 b. #Zu hondoratu zinen.

Artikulu honetan, bada, egitura inpertsonalen sintaxia hobeto ulertzeko bi galdera nagusi erantzun nahiko genituzke: batetik, zergatik izan behar duen kanpo argumentu inplizituak gizaki interpretazioa, eta bestetik, zergatik ezin duen barne argumentuak lehen edo bigarren pertsonakoa izan. Pertsonari lotutako gertakariak dira biak ala biak, eta ikusiko dugunez, kanpo argumentu inplizitu horren pertsona izaera da, hain zuzen ere, barne argumentuan pertsona murriztapena eragiten duena. Horixe izango da gure analisi sintaktikoaren gako nagusia.

Azkenik, barne argumentuaren pertsona murriztapenak nolabaiteko *saihesbidea* duela ere erakutsiko dugu. Izan ere, egitura inpertsonalean, lehen edo bigarren pertsonako barne argumentua absolutiboz markatu ezin badaiteke ere, datiboz marka daiteke (Berro et al., 2022; Fernández & Berro, 2021; Hualde, 1988; Ortiz de Urbina, 1988, 2003, 2011-2019; Ortiz de Urbina & Fernández, 2016; Rezac, 2009a, 2016). Halakorik ez dago beharbada euskara batu jasoan, baina euskara batu informalean eta Hegoaldeko hizkeretan behintzat entzuten dira (8)ko adibideak bezalakoak.

- (8) a. Ondo ikusten zait hortik?
 b. Ez zaizu ezagutu ere egiten orrazkera berri horrekin!

Gure analisi teorikoaren arabera, datibo markapena absolutiboak ekarriko lukeen ez-gramatikaltasuna saihesteko estrategia bat da, egitura inpertsonalak lehen edo bigarren pertsonako barne argumentuekin sortzeko bide bat. Alde horretatik, *Pertsona Kasuaren Murriztapena* (PKM) (Rezac, 2007, 2011) saihesteko estrategiak bezalakoexa da egitura inpertsonalean jasotzen den datibo markapena.

Hau izango da lanaren egitura. 2. atalean, kanpo argumentu inplizituaren izaera sintaktikoa argitzen saiatuko gara, beti ere pertsonari lotutako baldintzari arreta berezia eskainiz. 3. atalean, barne argumentuaren pertsona murriztapena arakatuko dugu. Jarraian, 4. atalean, kanpo eta barne argumentuak pertsonari dagokionez erakusten

duen jokabidea azalduko duen analisi sintaktikoa proposatuko dugu. Analisi horrek berak murriztapenaren saihebidetza ere azal dezakeela erakutsiko dugu 5. atalean. Eta, azkenik, 6. eta azken atalean ondorio nagusiak bilduko ditugu.

2. KANPO ARGUMENTU INPLIZITUAREN IZAERA SINTAKTIKOA

Atal honetan, egitura inbertsonaletako kanpo argumentuaren izaera sintaktikoa aztertuko dugu. 2.1. atalean, predikatu iragankorrekin osatutako egitura inbertsonaletako kanpo argumentua semantikoki ez ezik sintaktikoki ere indarrean dagoela erakutsiko dugu, nahiz eta iragankor arruntetan ez bezala, inbertsonaletako kanpo argumentuak halabeharrez isila izan behar duen. Jarraian, argumentu inplizitu hori, sintaktikoki islatzen dena, nolakoa den azalduko dugu. Sintaxian izan beharko lituzkeen tasunak zehaztuko ditugu lehenbizi (2.2 atala), eta bere kategoria sintaktikoa identifikatuko dugu ondoren (2.3 atala). Kanpo argumentu inplizituak komunztadura harremanetan izango duen jokaera ulertzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu bere [pertsona] eta [numero] tasunak zein kategoria sintaktikoa identifikatzea. Izan ere, kategorikoki Determinatzaile Sintagmak (DS) diren eta [pertsona] zein [numero] tasunak dituzten argumentuek baino ezin dute buru funtzionalekin komunztadura egin –[pertsona] eta [numero] tasunei *phi-tasunak* esaten zaie Gramatika Sortzailean eta zehazki Minimalismoan (Chomsky, 2000, 2001), eta horiek direla-eta egin behar dute DSek komunztadura buru funtzionalekin–.

Itxura batean behintzat, inbertsonaletako kanpo argumentua ez da gainerako DS kategoriako argumentuak bezala isilean zein agerian ager daitezkeen horietakoa. Ez da, beraz, literaturan interpretazio erreferentziaduna edota ez-arbitrarioa duen argumentu isiltzat hartu direnetakoa (ikus Duguine, 2010, 2013 euskararako), ez baitu morfologikoki azalertzeko inolako aukerarik (Berro & Fernández, 2019; Brettschneider, 1979, 381. or.; Fernández & Berro, 2021; Ortiz de Urbina, 2003, 2006; Urrestarazu, 2019). (9)ko adibideetan ikus daitekeenez, egitura iragankor arrunt batean ergatibo kasu eta komunztadurarekin agertuko litzatekeen kanpo argumentuak (9a) inplizitua baino ezin du izan egitura inbertsonalean (9b). Ez gara, beraz, isilean agertzeko aukera duen argumentu batez ari, isilean baino agertu ezin den batez baizik. Kanpo argumentu inplizitua berez da isila. Bestetik, kanpo argumentu horrek ez du beste hizkuntza batzuetako egitura pasiboetan gertatzen den bezala Postposizio Sintagma (PS) gisa agertzeko aukerarik (9c) (Fernández & Berro, 2021).

- (9) a. Marinelak itsasontzia hondoratu zuen.
 b. Itsasontzia hondoratu zen.
 c. *Itsasontzia hondoratu zen marinelaz.

Gure ustez, kanpo argumentuaren interpretazio arbitrarioa da agerian agertzeko ezintasuna dakarrena; ezin denez pertsona jakin batekin identifikatu, ezinezkoa da lehen, bigarren edo hirugarren pertsonako PS baten bidez berreskuratzea. Badirudi, beraz, argumentu inplizitu hau *phi-tasunei* eta kategoria sintaktikoari dagokienez, gainerako argumentuekiko desberdina dela neurri batean behintzat.

Atal honetan, egitura inpertsonaletako kanpo argumentu implizitua izenordain isil bat dela argudiatuko dugu, Albizuk (1997c, 2001) proposatu zuen bezala, zehazki interpretazio arbitrarioa duen *pro* txiki bat. Erakutsiko dugunez, izenordain isil hori DS kategoriakoa da, ezinbestean [+gizaki] gisa interpretatu behar dena. Interpretazio arbitrarioa duenez, DS horren [pertsona] tasunek balio zehatzik ez dutela proposatuko dugu. Halaber, numeroari dagokionez inolako baldintzarik bete behar ez duenez, kanpo argumentu implizitu horrek [numero] tasunik ez duela ere argudiatuko dugu. Horixe izango da 4. atalean proposatuko dugun analisi sintaktikoaren oinarria.

2.1. Kanpo argumentua syntaxian ere islatzen da

1. atalean ikusi dugun bezala, egitura inpertsonalak predikatu iragankorrekin osatu daitezke, nahiz eta morfologikoki iragangaitz gisa itxuratzen diren. Egitura inpertsonalean barne argumentua baino agertzen ez denez, burura datorkigun galdera bat da ea kanpo argumentua, morfologikoki islatzen ez dena, syntaxian ere ba ote dagoen. Galdera horri erantzunez, euskarazko inpertsonaletan kanpo argumentua semantikoki ez ezik sintaktikoki ere indarrean dagoela erakutsiko dugu jarraian. Horretarako, Fernándezek eta Berrok (2021, 31.-37. or.) argumentu implizitu honen agerpen sintaktikoa frogatzeko erabilitako testak ekarriko ditugu gurera. Batetik, egitura inpertsonalak ekintzaren egileari zuzendutako modifikatzaileak onartzen ditu, egile ezutuak borondatea baduela erakusten dutenak (10a). Bestetik, kanpo argumentu implizituak ekin-tzan darabilen baliabidea adieraz liteke PS instrumental edo soziatibo baten bitartez (10b) (Fernández & Berro, 2021, 35. or.).

- (10) a. Itsasontzia nahita / kontu handiz hondoratu zen.
b. Karramarroak erraz harrapatzen dira eskuz/salabardoarekin.

Horrez gain, (11)ko adibideetan ikus daitekeenez, kanpo argumentu implizitua bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko gai ere bada. Izan ere, *oinutsik* (11a) eta *zutunik* (11b) bigarren mailako predikatuek kanpo argumentuaren ezaugarri bat adierazten dute, hots, ibaia zeharkatzen duen eta herriko ereserkia kantatzen duen pertsonarena (edo pertsonena) (Fernández & Berro, 2021, 36. or.).

- (11) a. Ibaia erraz zeharkatzen da oinutsik.
b. Herriko ereserkia zutunik kantatzen da.

Azkenik, perpaus inpertsonalari helburua adierazten duen perpaus adjuntu bat gaineratuz gero, kanpo argumentu implizituak perpaus adjuntuaren PRO argumentu isila kontrola dezakeela ikus dezakegu (12) (Rodet, 1992).

- (12) Itsasontzia hondoratu zen aseguruak kobratzeko.

Adibide hauek guztiek erakusten dute kanpo argumentua semantikoki ez ezik sintaktikoki ere indarrean dagoela: egileari zuzendutako modifikatzaileak (10) eta bigarren mailako predikatuak (11) zilegiztatzen ditu, baita PRO argumentuak kontrolatu ere (12). Ondorioz, egitura inpertsonalen analisi sintaktikoan kanpo argumentu hori

islatu behar da, baita berau eratorpenean gaineratuko duen buru sintaktikoa ere. Ildo horri jarraituz, proposatuko dugu kanpo argumentu implizitua DS bat dela, eta egitura iragankor arruntetako kanpo argumentua bezala, Boz Sintagmaren espezifikatzaile gunean gaineratzen dela eratorpen sintaktikoan (Berro et al., 2022).

2.2. Singularra edo plurala, baina beti pertsona (+gizakia)

1. atalean esan dugun bezala, egitura inbertsonaletako predikatua iragankorra denean, kanpo argumentua pertsona gisa interpretatu beste aukerarik ez dago. Ikusi dugunez, gainera, delako baldintza hori egitura inbertsonalak berak eragindakoa da. *Eraman* bezalako predikatu batek, adibidez, kanpo argumentu bizidun zein bizigabeak izan ditzake (13a), baina egitura inbertsonal batean agertzen denean gizaki gisa bakarrik interpretatu daiteke kanpo argumentu implizitu hori (13b). Oso bestela, numeroak ez du inolako zerikusirik honetan guztian: kanpo argumentutzat hartzen dugun hori pertsona bat edo gehiago izan daitezke³.

- (13) a. Langileak/haizeak teilatuetao teilak eraman ditu hondartzaraino.
b. Teilatuetao teilak eraman dira hondartzaraino.

Badirudi, beraz, egitura inbertsonalak berak eragindako baldintza dela kanpo argumentua pertsonatzat hartu beharra, eta horrek sintaxi teoriari dagokionez inbertsonaletako kanpo argumentu implizituak [pertsona] tasunak izan behar dituela iradokitzen du. Orobat, ezinezkoa denez kanpo argumentu hori lehen, bigarren edo hirugarren pertsonarekin identifikatzea, [pertsona] tasun horiek balio jakinik ez dutela proposatuko dugu⁴. Beste alde batetik, [numero] tasunei dagokienez, kanpo argumentu implizituak

3 Berrikusle batek ohartarazi digunez, zenbait egitura inbertsonaletan uler liteke arazle bizigabe bat izatea egoera aldatetaren eragilea. Esate baterako, honelako testuinguru batean: «Klima aldateta geldiezina da. Erleak hiltzen dira.» Haren ustez, egitura inbertsonaletan kanpo argumentu implizitua [+gizaki] izateko baldintzaren kontrako ebidentzia litzateke hori. Adibide hori, baina, egitura inkoatiboa da gure ustez, ez inbertsonala. Egitura inkoatiboak arazletasuna izan badu (Chierchia, 2004; Levin & Rappaport Hovav, 1995). Izan ere, Alexiadouk et al.-ek (2006) eta Alexiadouk eta Schäferrek (2006) erakutsi duten bezala, egitura inkoatiboetan arazle bizigabeak ager daitezke PS-en bitartez (i). Egileek, ordea, ez dute PS gisa agertzeko inolako aukerarik (ii).

(i) a. Klima aldatetak erleak hiltzen ditu.
b. (Klima aldatetarekin) erleak hiltzen dira.

(ii) a. Jonek erleak hiltzen ditu.
b. (*Jonekin) erleak hiltzen dira.

(iib) bezalako egiturak inkoatiboak dira. Horregatik ager daiteke *klima aldateta* bezalako arazle bizigabe bat PS batean. Guk aztergai dugun egitura inbertsonala, berriz, (iib) bezalako da, eta kasu honetan kanpo argumentua ez litzateke arazletasunari lotuta egongo, egiletasunari lotuta baizik. Hortik letorke egilea (*Jon*) PS gisa azaleratzeko ezintasuna.

4 Berrikusle batek iradokitzen digu kanpo argumentu implizituaren interpretazioa, arbitrarioa ez, baizik eta hirugarren pertsonakoa izan daitekeela. Gure ustez, ordea, kanpo argumentu implizitua ez litzateke zuzenean hirugarren pertsonarekin identifikatu behar. (13)ko adibideetan egitura inbertsonalaren baliokide iragankorrean hirugarren pertsonako kanpo argumentua ageri bada ere, posible izango litzateke kanpo argumentu hori lehen edo bigarren pertsonakoa izatea ere. Ido beretik, interpretazio arbitrarioak bidea ematen dutenez, egitura inbertsonalen baliokide iragankorretan hirugarren pertsona pluralak edo bigarren pertsona singularreko kanpo argumentuak ageri ohi dira sarri. Nolanahi ere, ez dugu uste horrek kanpo argumentu implizitua ezinbestean [pertsona] eta [numero] tasun horiekin lotzea dakarrenik, esan bezala, posible baita bestelako tasunak dituzten kanpo argumentudun predikatuetatik abiatuta osatzea egitura inbertsonala.

ez du inolako baldintzarik bete behar, hots, ez du ezinbestean singularra edo plurala izan behar. Begiratu berriz ere (13b) adibideari. Perpaus horretan garbi dago pertsona batek baino ezin izan dituela teilak hondartzaraino eramane. Ez dakigu pertsona bakarra ote den ekintza hori burutu duena, bat baino gehiago ote diren, ezta pertsona multzo jakin batez ari ote garen ere. Horrenbestez, analisi teorikoari begira, argumentu honen phi-tasunak [pertsona] tasunek bakarrik osatzen dituztela ondorioztatuko dugu (Berro et al., 2022).

2.3. Kanpo argumentua DS bat da

Kanpo argumentu implizituaren phi-tasunak identifikatuta, argumentu honen kategoria sintaktikoaz eztabaidatuko dugu jarraian. Izan ere, argumentu implizituen izaera sintaktikoa askotarikoa izan daiteke (Bhatt & Pancheva, 2005; Landau, 2010). Landauk (2010), zehazki, proposatu du argumentu implizituak bi motatakoak izan daitezkeela: DS osoak (*pro* modukoak) eta sintaktikoki murriztagoak diren phiS-ak. Leheni *argumentu implizitu sendoak* deritze (ingelesez *strong implicit arguments*), bigarreni, aldiz, *argumentu implizitu ahulak* (*weak implicit arguments*). Landauren arabera, biak daude sintaktikoki indarrean eta biak islatzen dira eratorpenean dagokien gunean. Nolanahi ere, DS kategoria dutenak argumentu osoak dira phiS-ak baino eta, ondorioz, operazio sintaktiko gehiago baimentzeko gai dira. Besteak beste, DS-ek bakarrik izango lukete bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko aukera⁵.

Euskarazko egitura inbertsonaletara etorrira, atal honetan kanpo argumentu implizituak DS baten moduan jokatzeko duela erakutsiko dugu. Argumentu implizituen kategoria sintaktikoa aztertzean bi test baliatu izan dira nagusiki dena delako argumentua DS bat edo phiS bat den erabakitzeke (Landau, 2010): goian aipatu dugun bigarren mailako predikazioaren zilegiztatzea batetik eta anafora elkarkari zein bihurkariaren uztardura bestetik. Landauk (2010) dioenez, DS kategoriako argumentuek baino ezin dute bigarren mailako predikazioa zilegiztatu eta anafora elkarkari zein bihurkariak uztartu. D bururik ez duten izenordain implizituak, ordea, ez dira ez bata ez bestea

5 Konparatu ingelesezko beheko adibideak: perpaus ez-jokatuen subjektua bigarren mailako predikatuekin ezaugarritu liteke (ia, c), baina perpaus pasiboen subjektua, ordea, ez (iib, d).

- (i) a. It is impossible [PRO to visit me together].
 b. It is impossible [for me to be visited (*together)].
 c. They expected [PRO to leave the room angry].
 d. The room was left (*angry). (Chomsky, 1986, 120.-121. or.)

Landauk aldarrikatzen du perpaus ez-jokatuen subjektu implizitua DS bat dela (hots, argumentu implizitu sendoa), eta horregatik zilegiztatu ditzakeela *together* eta *angry* bezalako bigarren mailako predikatuak. Perpaus pasiboen subjektua, aldiz, phiS kategoriako litzateke eta, hori dela eta, ez da bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko gai. Halaber, gaztelaniaz, kontraste argia sortzen da pasibo perifrastikoen subjektuaren eta SE-egitura inbertsonalen artean. Lehenak ezin du bigarren mailako predikaturik zilegiztatu; bigarrenak ordea bai.

- (ii) a. ¡No se besa a Maria borracho!
 b. *Maria no es besada borracho. (Ormazabal & Romero, 2019, 75.-76. or.)

Euskarazko inbertsonaletako kanpo argumentu implizituak ingelesezko perpaus ez-jokatuen subjektuarekin eta gaztelaniazko SE-egitura inbertsonalen subjektuarekin bat egingo luke zentzu horretan.

egiteko gai, ez baitute horretarako beharrezkoa den oinarrizko egitura sintaktikorik. Aipatutako bi test horietan oinarrituz, euskarazko egitura inperersonaletako kanpo argumentu inplizitua DS bat dela erakutsiko dugu jarraian.

Alde batetik, (11)ko adibideetan ikusi dugun bezala, inperersonaletako kanpo argumentu inplizitua bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeko gai da. Beste alde batetik, anafora elkarkari eta bihurkarien uztardurak ere kanpo argumentu inplizitua DS kategoriakoa dela berresten duela erakutsiko dugu. Landauk (2010) proposatu bezala, DS kategoriakoa dela frogatzeko, argumentu jakin batek bigarren mailako predikazioa zilegiztatzeaz gain, anafora elkarkari zein bihurkariak uztartzeko gai izan behar du. Izan ere, uztardura harremanetako aitzindariak D burua izan behar du anafora uztartu ahal izateko. Bada, (14)ko adibideek erakusten dutenez, predikatu iragankorrekin osatutako egitura inperersonaletan posible da anafora elkarkariak izatea, Albizuk (1997c) eta Ortiz de Urbina (2003) aipatu bezala, aspektu burutugabearekin batez ere⁶. Adibide horietan anafora elkarkaria barne argumentua bera denez, kanpo argumentu inplizitua izango da anafora hori uztartuko duen argumentua (Albizu, 1997c; Ortiz de Urbina, 2003).

- (14) a. Elkar engainatzen denean, ... (Ortiz de Urbina, 2003, 588. or.)
 b. Hona heltzean, elkar agurtzen/besarkatzen da.

Anafora elkarkariez gain, egitura inperersonalek anafora bihurkariak ere onartzen dituzte, horrenbestez, kanpo argumentu inplizituak anafora bihurkariak uztartzeko gaitasuna ere badu. Alabaina, kanpo argumentu horrek [perersona] tasunei dagokienez balio zehatzik ez duten anafora bihurkariak baino ezin ditu uztartu, hots, *norbere burua* bezalakoak. Izan ere, *norbere buruak* perersona bat eskatzen du aitzindaritzat, beti ere interpretazio arbitrarioa duena, hau da, lehen, bigarren edo hirugarren perersonarekin identifikatuko ez den perersona bat. Eta dagoeneko ikusi dugunez, halakoxea da inperersonaletako kanpo argumentua. Hori dela eta, *norbere burua* ez bezala, lehen, bigarren eta hirugarren perersonakoak diren *nire/zure/bere burua* bezalako anafora bihurkariak ezin dira egitura inperersonaletan agertu, halakoek [perersona] tasunetan balio bera duen argumentu bat eskatzen baitute aitzindaritzat. Horregatik da, hain zuzen ere, (15)eko adibidea ez-gramatikala.

- (15) *Bere burua engainatzen denean... (Ortiz de Urbina, 2003, 588. or.)

(15) adibidean daukagun anafora bihurkariak, *bere buruak*, hirugarren perersonako aitzindaria eskatzen baitu, edo bestela esanda, hirugarren perersonako kanpo argumentua. (16)ko adibideak, berriz, gramatikalak dira. (16a) adibidean *norbere burua*

6 Ez dugu uste anafora elkarkariak aspektu burutugabearekin arruntagoak izatea uztardura harremanen dagoen ezaugarri bat denik. Iruditzen zaigu euskarazko egitura inperersonalak oro har aspektu burutugabearekin ohikoagoak direla aspektu burutuarekin baino. Dena dela, gure ustez behintzat aspektuaren araberako bereizketa hori ez da egituraren gramatikaltasuna baldintzatzeko bezain sendoa, eta beraz, gure analisi sintaktikoan ez diogu auzi horri aparteko garrantzirik emango. Nolanahi ere, berriksle batek aipatzen digun bezala, interresgarria litzateke etorkizunean inperersonaletan aspektuaren eragina zenbaterainokoa izan daitekeen aztertzea.

bihurkaria osagarri gunean agertzen da; (16b) adibidean, berriz, zehar osagarri bati legokiokeen gunean. Beraz, [pertsona] tasun zehaztugabeak dituen kanpo argumentu inplizitua izango da batean zein bestean *norbere burua* uztartzen duen aitzindaria.

- (16) a. Norbere burua engainatzen denean...
b. Ikastaroko lehen egunean, norbere buruari gutun bat bidaliko zaio.

Esan bezala, goiko (15) adibidearen ez-gramatikaltasuna bera ere hirugarren pertsonako aitzindaria eskatzen duen bihurkari bat erabiltzetik datorrela iruditzen zaigu. Gauza bera gertatuko litzateke lehen pertsonako *nire burua* edo bigarren pertsonako *zure burua* izango bagenu (17).

- (17) *Beste inorena baino lehen, nire/zure burua maitatzen da hemen.

Egitura inbertsonalez harago, egitura iragankor arruntetan ere ikus daiteke *norbere burua* anafora bihurkariak [pertsona] tasunetan zehaztugabeak diren aitzindariak baino onartzen ez dituela (18).

- (18) a. Beste inorena baino lehen, norbere burua maitatzen da hemen.
b. *Beste inorena baino lehen, (nik/zuk/horrek) norbere burua maitatzen du hemen.

(18a) adibidean *norbere burua* egitura inbertsonalean ageri da eta, beraz, bere aitzindaria [pertsona] tasunak bai, baina tasun horiek zehaztugabe dituen kanpo argumentu inplizitua izango da. (18b) adibidean, berriz, lehen, bigarren edo hirugarren pertsonako [pertsona] tasunak dituen aitzindaria ageri da, alegia, *nik/zuk/horrek*, eta horietako bakar bat ere ez da *norbere burua* anaforarekin bateragarria. (18b) bezalako perpaus bat gramatikala izateko, aitzindariaren, hots, kanpo argumentuaren [pertsona] tasunekin bat egingo duen bihurkaria beharko genuke. Orduan bai, aitzindariaren eta bihurkariaren tasunek bat eginez gero, perpausa gramatikala izango litzateke, (19) ko adibideak erakusten duten bezala.

- (19) Beste inorena baino lehen, nik/zuk/hark nire/zure/bere burua maitatzen dut/duzu/du.

Laburbilduz, anafora bihurkariaren uztardurak egitura inbertsonaletako kanpo argumentu inplizitua DS kategoriakoa dela erakustez gain, argumentu horrek zehaztu gabeko [pertsona] tasunak dituela berresten du.

3. BARNE ARGUMENTUAREN PERTSONA MURRIZTAPENA

2.2 atalean ikusi dugunez, egitura inbertsonaletako kanpo argumentu inplizituak [+gizaki] interpretazioa izan behar du ezinbestean. Atal honetan, inbertsonalek [pertsona] tasunekiko duten loturan sakonduko dugu, eta erakutsiko dugu kanpo argumentuaren pertsona baldintzaz gain, barne argumentuak berak ere pertsonari lotutako

murriztapen bat jasaten duela. Izan ere, egitura inbertsonaletako barne argumentuak ezin du lehen edo bigarren pertsonakoa izan, hau da, hirugarren pertsonakoa izan behar du nahitaez. Horrez gain, hirugarren pertsonakoa denean ere, normalean bizigabea izaten da, nahiz eta biziduna izatea ere posible den (Berro & Fernández, 2019; Fernández & Berro, 2021; Rodet, 1992). Hori dela eta, (20a) bezalako perpaus bat gramatikala bada ere, (20b) eta (20c) ez dira gramatikalak interpretazio inbertsonalean, bai ordea inkoatiboan.

- (20) a. Itsasontzia hondoratu zen.
 b. #Ni hondoratu nintzen.
 c. #Zu hondoratu zinen.

Kanpo argumentu (implizitu) baten presentzia da egitura inbertsonalak inkoatiboetatik bereizten dituen. Beraz, arazoa ezin liteke barne argumentuak berez dakarren ezintasun batetik eratorri; arazoa kanpo argumentuaren presentziak sortu beharko luke. Inkoatiboetan kanpo argumenturik ez dagoenez, barne argumentua hirugarren pertsonakoa ez ezik, lehen eta bigarren pertsonakoa izan daiteke. Inbertsonaletan, al-diz, barne argumentua ezin izango da lehen edo bigarren pertsonakoa izan.

Barne argumentuaren murriztapenaren jatorrian are gehiago sakonduz, murriztapena eragiten duena kanpo argumentua bera baino, kanpo argumentu horren izaera arbitrarioa dela esango genuke. Hau da, gure ustez murriztapena ez dator zuzenean kanpo argumentu bat egotetik, kanpo argumentu horrek balio zehatzik ez duen [pertsona] tasunak izatetik baizik. Horren erakusle dira egitura iragankor arruntak. Egitura iragankorretako kanpo argumentua agerikoa edo isila izan daiteke batetik, eta biziduna zein bizigabea bestetik. Edozein kasutan, iragankorretako barne argumentuak ez du sekula pertsonari dagokionez inolako murriztapenik erakusten, hirugarren pertsonakoa ez ezik (21a), lehen (21b) edo bigarren (21c) pertsonakoa ere izan daiteke.

- (21) a. (Jonek/itsasoaren indarrak) itsasontzia hondoratu du.
 b. (Jonek/itsasoaren indarrak) ni hondoratu nau.
 c. (Jonek/itsasoaren indarrak) zu hondoratu zaitu.

Egitura inbertsonaletakoak ez bezala, egitura iragankorretako kanpo argumentuak ez du ezinbestean isila izan behar, ezta ezinbestean gizakia ere; izan daiteke, baina ez du zertan. Horrez gain, egitura iragankorretako kanpo argumentua isila denean ere lehen, bigarren edo hirugarren pertsonakoa den jakin daiteke aditz komunztaduraren bitartez. Halaxe gertatzen da (22)ko adibideetan.

- (22) a. (Nik/zuk/hark) itsasontzia hondoratu dut/duzu/du.
 b. (Zuk/hark) ni hondoratu nauzu/nau.
 c. (Nik/hark) zu hondoratu zaitut/zaitu.

Bestalde, bada barne argumentuaren pertsona murriztapena kanpo argumentuaren [pertsona] tasun zehaztugabeek eragiten dutela erakusten duen beste alderdi bat ere: murriztapenean [numero] tasunek duten eraginik eza. Izan ere, predikatu iragankorreko

egitura inbertsonaletan barne argumentuak erakusten duen murriztapenak pertsonari baino ez dio eragiten. Hori dela eta, egitura inbertsonala berdin-berdin izango da ez-gramatikala lehen edo bigarren pertsonako barne argumentu hori singularra (20) edo plurala (23) izan.

- (23) a. #Gu hondoratu ginen.
 b. #Zuek hondoratu zineten.

Argi dago, beraz, barne argumentuaren murriztapena kanpo argumentu inplizituaren presentziak eragiten duela, zehazki, kanpo argumentu horren [pertsona] tasun zehaztugabeek. 2.2 atalean ikusi dugunez, inbertsonaletako kanpo argumentuak pertsonari lotutako baldintza baino ez du erakusten. Numeroari dagokionez, ez du inolako betekizunik. Ez zaigu, beraz, kasualitatea iruditzen barne argumentuan ere numeroak inolako zeresanik ez izatea. Badirudi inbertsonaletan barne argumentuak ezin duela kanpo argumentuak dakarren tasun hori izan. Kanpo argumentuak ez dakarren tasuna, berriz, barne argumentuak izan dezake. Ondorioz, kanpo argumentu inplizituak [pertsona] tasunak dituenez, barne argumentuak ezin du [pertsona] tasunik izan –betiere kontuan hartuta lehen eta bigarren pertsonako izenordainak direla ezinbestean [pertsona] tasunak izan behar dituzten bakarrak; hirugarren pertsonakoak pertsona izan daitezke edo ez eta, beraz, syntaxian ere [pertsona] tasunekin agertu ahal izango dira edo ez (Richards, 2008)–. Bestalde, kanpo argumentu inplizituak [numero] tasunik ez duenez, barne argumentuak ez du [numero] tasunei lotutako murriztapenik izango.

4. PERTSONARI LOTUTAKO BI GERTAKARIAK BATZEN: ANALISI SINTAKTIKOA

Atal honetan inbertsonalek pertsonari dagokionez erakusten duten jokaera sintaxi teoriaren ikuspegitik azaltzea izango dugu helburu. Gure analisi sintaktikoan, barne argumentuaren pertsona murriztapena kanpo argumentuaren pertsona baldintzaren ondorio dela proposatuko dugu. Lotura hori azaltzeko, inbertsonalen eratorpen sintaktikoa nolakoa den aztertuko dugu. Egitura iragankor arruntetan ez bezala, inbertsonaletan komunztadura egiteko gai den buru funtzional bakarra dagoela proposatzen dugu: Denbora burua (Denb). Kanpo argumentua sintaktikoki DS gisa indarrean dagoela jakinda (ikus 2. atala), egitura inbertsonaletan ere Boz burua tematikoa dela eta kanpo argumentua gaineratzeko gai dela aldarrikatzen dugu. Dena dela, kasu eta komunztadurari dagokionez inbertsonalak iragankorrak baino murrizagoak direla aintzat hartuta, inbertsonaletan Boz buru hori defektiboa dela onartuko dugu, hots, kanpo argumentua gaineratzeko gai bada ere, inbertsonaletako Boz buruak ez du tasun interpretagaitzik. Phi-tasun interpretagaitzak argumentuei kasua zilegiztatzeko gai diren buru funtzionalek izan ohi dituzte, bestela esanda, komunztadura harremanean sartzeko gaitasuna duten horiek, eta gure ustez horixe da hain zuzen ere inbertsonaletako Boz buruak falta duena. Hori dela eta, kanpo eta barne argumentuak buru funtzional berarekin egin beharko dute komunztadura, Denb-ekin, alegia. Hortik etorriko da, beraz, inbertsonaletako barne argumentuaren pertsona murriztapena. Eratorpenean goren dagoen argumentua izanik, Denb buruak kanpo argumentuarekin erkatuko ditu

bere [pertsona] tasun interpretagaitzak, eta ondorioz, buru honen [numero] tasunak erkatzeke egongo badira ere, barne argumentuak ez du dagoeneko [pertsona] tasunetan komunztadura egiteko aukerarik izango –gogoratu inpersoneletako kanpo argumentu inplizituak [pertsona] tasunak baino ez dituela, numeroari dagokionez ez baitu inolako baldintzarik bete behar (ikus 2.2 eta 2.3 atalak)–. Horixe izango da atal honetan aurkeztuko dugun analisi sintaktikoaren ekarpen nagusia. 4.1 atalean, egitura iragankor arruntan eratorpena ikusiko dugu, eta hortik abiatuta azalduko ditugu 4.2 atalean inpersonelek erakusten dituzten berezitasunak.


4.1. Egitura iragankorra: bi argumentu, bi buru komunztadura egiteko

Egitura iragankor arruntetan, kanpo eta barne argumentuak buru funtzional banarekin egiten dute komunztadura, eta jakina denez, barne argumentuak ez du inolako pertsona murriztapenik jasaten. Orokorrean, kanpo argumentuak Denb buruarekin komunztadura egiten duela onartzen da, eta barne argumentuak kanpo argumentua eratorpenean sartzen duen Boz buruarekin (Boz) (Kratzer, 1994, 1996), edo nahiago bada, aditz txikiarekin (*a*) (Chomsky, 1986). Komunztadura harreman horietan, argumentuek buru funtzionaletan interpretagaitzak izan ohi diren phi-tasunak balioztatzen dituzte argumentuek berek phi-tasunetan duten balioaren bidez (Chomsky, 2000, 2001). Har dezagun, esate baterako, (24) bezalako perpaus iragankor bat.

(24) Mirenek liburu horiek erraz saltzen ditu.

Hirugarren pertsona singularrekoa izanik, kanpo argumentuak [3, sg] balioarekin balioztatuko lituzke Denb buruaren phi-tasun interpretagaitzak, eta barne argumentuak, hirugarren pertsona pluralekoa denak, [3, pl] balioarekin Boz buruarenak. Komunztadura harreman horien ondorioz, kanpo argumentuak ergatibo kasu eta komunztadura erakusten ditu, eta barne argumentuak absolutibo kasu eta komunztadura. Argumentuen kasu zilegiztatzeari dagokionez, Boz buruak phi-tasun interpretagaitzak dituela onartzen dugu, barne argumentuari absolutibo kasua esleitzeko gaitasuna ematen diotenak. Kanpo argumentuaren kasu esleipenari dagokionez, gure proposamena bateragarria da ergatiboa berezko kasutzat hartzen duten analisiekin zein egiturazko kasutzat hartzen dutenekin. Berezko kasutzat hartzekotan, Boz burua izango litzateke kanpo argumentuaren ergatibo kasua zilegiztatuko lukeena (Aldridge, 2004; Coon, 2010; Legate, 2002, 2008; Massam, 2002; Woolford, 2006). Egiturazko kasua balitz, berriz, Denb burua izango litzateke komunztadura erkatzearekin batera kanpo argumentuaren kasua zilegiztatuko lukeena (Rezac, Albizu & Etxepare, 2014). Nolanahi ere, kanpo argumentuaren kasu zilegiztatzea berezkoa edo egiturazkoa izan, perpaus iragankor arruntetan kanpo eta barne argumentuen komunztadura harremanak beregainak direla azpimarratu nahiko genuke. Horregatik ez dio bata besteari eragiten, bestela esanda, horregatik ez da inolako pertsona murriztapenik sortzen barne argumentuan. (25)eko zuhaitz sintaktikoak jasoko luke goiko (24) bezalako perpaus iragankor baten eratorpen sintaktikoa⁷.

7 Ingelesean egin ohi den bezala, tasun interpretagaitzak *u* ikurrarekin irudikatuko ditugu zuhaitz sintaktikoetan.



Ikus dezagun orain egitura inpertsonaletako eratorpen sintaktikoa zertan den iragankorrekiko desberdin eta, beraz, zer den inpertsonaletan barne argumentuaren pertsona murriztapena dakarrena.

4.2. Inpertsonala: bi argumentu, buru bakarra komunztadura egiteko

3. atalean ikusi dugunez, inpertsonaletan kanpo argumentuak [pertsona] tasunak izateak barne argumentuak berak ere [pertsona] tasunak izatea oztopatzen du. Orokorpen hori aintzat hartuta, egitura iragankorretan ez bezala, inpertsonaletan kanpo eta barne argumentuaren komunztadura harremanak buru funtzional berarekin gauzatzen direla proposatuko dugu atal honetan. Hortik dator, gure analisiaren arabera, kanpo argumentuak barne argumentuan sortzen duen pertsona murriztapena.

Hasteko, predikatu iragankorrekin osatutako egitura inpertsonala, morfologikoki dirudienaren kontra, argumentu bikoia dela aldarrikatu dugu hemen. Nolanahi ere den, sintaktikoki egitura iragankor arrunt bat baino murriztagoa izan beharko litzateke nolabait, kasu eta komunztadura harreman bakarra islatzen baitu morfologikoki, absolutiboari dagokiona, alegia (aditz laguntzaile iragangaitza erakustez gain). Gure azterbidean, murriztapen horrek zerikusia du egitura inpertsonalean parte hartzen duten buru funtzionalen defektibotasunarekin.

4.1 atalean ikusi dugunez, egitura iragankorretan komunztadura egiteko gai diren bi buru funtzional daude: Denb eta Boz. Denb buruak kanpo argumentuarekin egiten du komunztadura eta Boz buruak barne argumentuarekin. Bada, egitura inpertsonaletan ere, Boz buruak kanpo argumentua gaineratzen duela proposatzen dugu. Horri dagokionez, inpertsonalek bat egiten dute iragankorrekin eta ez inakusatiboekin, izan ere, inakusatiboetan Boz buruak ez du kanpo argumentu tematiko bat gaineratzen. Nolanahi ere, inpertsonaletako Boz buru hori, iragankorretakoa ez bezala, defektiboa da gure analisiaren arabera, hau da, tematikoa den arren, Boz buruak kasua zilegiztatzeko beharko litzukeen phi-tasun interpretagaitzak falta ditu. Ondorioz, Boz buru horrek ez du komunztadura eginez argumentuei kasua zilegiztatzeko gaitasunik. Alderdi horretan, inpertsonaletako Boz burua inakusatiboan Bozaren antzekoa litzateke,

inakusatiboetan Boz bururik baldin badago behintzat. Laburbilduz, inpertsonaletako Boz burua iragankorretakoa bezala tematikoa da, eta hori da azken finean egitura inakusatiboetatik bereizten duena: kanpo argumentua gaineratzeko gaitasuna du. Alabaina, egitura iragankorretakoak ez bezala, inpertsonaletako Boz buruak ez du phitasun interpretagaitzik izango, eta horretan bat egingo du gainerako inakusatiboekin, berauetan ageri den Boz burua ere ez baita kasua zilegiztatzeko gai.

Bestalde, Boz buruaren defektibotasuna dela eta, egitura inpertsonaletan Denb izango da argumentuekin komunztadura egiteko indarrean egongo den buru funtzional bakarra. Denb da, datiboz markatutako bestelako argumenturik ezean, eratorpen sintaktikoan Boz buruaren ostean sartzen den lehen buru funtzionala, hortaz, buru horrekin egin beharko dute ezinbestean komunztadura perpausa osatzen duten bi argumentuek, kanpo eta barne argumentuak. Hala, egitura sintaktikoan goren dagoenak –hots, kanpo argumentuak– izango du Denb buruarekin komunztadura egiteko lehentasuna, eta ondorioz, egituran beherago dagoen argumentuak –barne argumentuak– ezin izango du Denb buruak dagoeneko erkatu dituen phitasun horietan komunztadura egin. Horixe da euskarazko inpertsonalek erakusten duten pertsona murriztapenaren jatorria.

Inpertsonaletan kanpo argumentuak [pertsona] tasunak baino ez dituenek, [pertsona] tasunetara mugatuko da Denb buru funtzionalarekin gauzatzen duen komunztadura harremana, eta horrek eragotziko du barne argumentuak buru funtzional berberarekin [pertsona] tasunetan komunztadura egitea. Salbuespenik gabe, egitura inpertsonal guztietan gertatuko den murriztapena izango da hori, inpertsonala osatzen duen predikatu iragankorra edozein dela ere, kanpo argumentuak ezinbestean interpretatu behar baita [+gizaki] gisa. Bestalde, kanpo argumentuaren [pertsona] tasunak zehaztugabeak direnez, Denb buruaren [pertsona] tasun interpretagaitzak besterik ezean hirugarren pertsona gisa balioztatuko dira, hori baita pertsonari dagokionez balio ez-markatua⁸. Hori bai, komunztadura harreman hori ez da morfologikoki azaleratuko, interpretazio arbitrarioa duen *pro* izenordain isila izanik, kanpo argumentua ezinbestean izan behar baitu inplizitua.

Kanpo argumentuak Denb buruarekin gauzatutako komunztadura harremanak eragin desberdina izango du barne argumentuak erkatu beharko dituen tasunen arabera. Alde batetik, pertsona gisa baino interpretatu ezin direnez, lehen eta bigarren pertsonako izenordainek beti izango dituzte [pertsona] tasunak zehaztuta, eta beraz, tasun horiek erkatu beharko dituzte kasua zilegiztatu ahal izateko (Béjar & Rezac, 2003). Hortaz, kanpo argumentuak [pertsona] tasunetan aurrez komunztadura egin duenez, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak ezin izango du komunztadura egin. Hala, [pertsona] tasunetan komunztadura egin ezean, argumentu hauek kasua zilegiztatu gabe geratuko dira, eta ondorioz, eratorpenak huts

8 Kontuan izan, gainera, hirugarren pertsonako argumentuetan baino ezin direla [pertsona] tasunak [numero] tasunetatik bereizi, dagokien bezala interpretatu ahal izateko, lehen eta bigarren pertsonakoek ezinbestean erkatu behar baitituzte bi tasunak batera (Anagnostopoulou, 2003; Taraldsen, 1995).

egingo du, ditransitiboetako Pertsona Kasuaren Murriztapenean (PKM) gertatzen den bezala (Anagnostopoulou, 2003; Béjar & Rezac, 2003). Hirugarren pertsonako barne argumentuek, aldiz, ez dute zertan [+gizaki] interpretazioa izan, bizidunak ez ezik bizigabeak ere izan daitezke-eta (Adger & Harbour, 2007; Anagnostopoulou, 2003; Béjar & Rezac, 2003; Rezac, 2007, 2008, 2009b, 2011; Ormazabal & Romero, 2007). Hori dela eta, hirugarren pertsonako barne argumentuek ez dute [pertsona] tasunetan komunztadura egin beharrik izango. Horrenbestez, Denb buruak kanpo argumentuarekin [pertsona] tasunak erkatu izana ez da hirugarren pertsonako barne argumentuentzat oztopo izango, komunztadura harremana gauzatzeko [numero] tasunak erkatzearekin nahikoa dute-eta.

Gauza bera gertatzen da azken batean ditransitiboetako PKMn ere. Ditransitiboetan, zehar osagarriak eta barne argumentuak buru funtzional berarekin komunztadura egiten dutela esan ohi da, hots, *a* txikirekin (edo nahiago bada, Boz buruarekin). Egitura sintaktikoan gorago egonik, zehar osagarria izan ohi da buru funtzional horrekin komunztadura egiten lehena, eta horrek oztopatzen du barne argumentuak [pertsona] tasunak erkatu ahal izatea. Hori dela eta, hirugarren pertsonakoek ez bezala, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuek ezin dute agertu komunztadura duen zehar osagarri batekin (26) (Laka, 1993; ikus halaber Albizu, 1997a, 1997b PKMren hizkuntza arteko deskribapen xehe baterako).

(26) a. *Zuk harakinari ni saldu naiozu.


b. Zuk harakinari liburua saldu diozu.

(Laka, 1993, 27. or.)

Konparatu (26a) eta (26b) adibideak. Batean zein bestean *harakinari* datibodun zehar osagarriarekin batera barne argumentu bat ageri da, (26a) adibidean lehen pertsonakoa eta (26b) adibidean hirugarren pertsonakoa dena. Hortxe dago bi perpausen arteko desberdintasuna, baita (26a) perpausaren ez-gramatikaltasunaren jatorria ere, aditz laguntzaileak zehar osagarriarekin komunztadura egiten duenean, barne argumentuak ezin baitu lehen edo bigarren pertsonakoa izan. Horrenbestez, Rezac (2009a, 314.-316. or.) berak iradoki bezala, inpertsonaletako kanpo argumentu inplizituak ditransitiboetako zehar osagarriak bezala jokatzeko duela iruditzen zaigu. Biek ala biek barne argumentuak [pertsona] tasunetan komunztadura egitea eragozten dute, eta hortik dator batean eta bestean sortzen den pertsona murriztapena, ditransitiboetan zehar osagarriak eragindakoa eta inpertsonaletan kanpo argumentu inplizituak eragindakoa dena.

Berriz ere inpertsonaletara itzuliz, (28)ko zuhaitz sintaktikoak erakutsiko luke (27) bezalako egitura inpertsonal baten eratorpen sintaktikoa. Perpaus horretan, barne argumentua hirugarren pertsonakoa da, eta beraz, ez da inolako pertsona murriztapenik sortzen. Ikus daitekeenez, Denb buruak kanpo argumentuarekin erkatzen ditu [pertsona] tasunak eta barne argumentuarekin [numero] tasunak.

(27) Liburu horiek erraz saltzen dira.



Jakina, (28)ko zuhaitz sintaktikoa bestelakoa litzateke barne argumentua hirugarren pertsonakoa izan beharrean lehen edo bigarren pertsonakoa izango balitz. Lehen eta bigarren pertsonako argumentuek ezinbestean erkatu behar dituzte [pertsona] tasunak, eta beraz, horretarako aukera emango dien buru funtzionalik izan ezean, eratorpenak huts egingo luke.

Bada, azkenik, inpertsonaletako aditz laguntzailearen hautaketari dagokionez aipatu nahiko genukeen kontu bat ere. Izan ere, euskaraz argumentu biko egituretan ohikoena izaten da **edun* aditz laguntzaile iragankorra hautatzea, eta ez inpertsonaletan agertzen den *izan* laguntzaile iragangaitza. Inpertsonalek erakusten duten jokaera azaltzeko, Berrok et al.-ek (2018) esandakoari neurri batean lotuz, **edun* laguntzailea Boz buruak phi-tasun interpretagaitzak dituen hautatzen dela onartuko dugu, eta *izan*, berriz, Boz buruak phi-tasun interpretagaitzik ez duenean⁹. Horrez gain, iragankorretan ez bezala, inpertsonaletan Denb buruarekin gauzatzen den komunztadura harremana morfologikoki absolutibo komunztadura marken bidez azaleratzen da, eta hori ere ez da iragankor arruntetan gertatzen den zerbait –gogoan izan iragankor arruntetan Denb buruaren komunztadura harremana ergatibo markapenarekin islatzen dela morfologikoki–. Gure ustez, buru jakin baten komunztadura harremanaren azaleratze morfologikoa FF (Forma Fonetikoa, ingelesez *Phonetic Form*) elkarguneko operazio batek bideratzen du: operazio horren arabera, Denb buruak phi-tasun interpretagaitzak dituen Boz buruarekin bat egiten duenean, Denb-ren phi-tasunak ergatibo komunztadura gisa azaleratuko dira morfologikoki. Osterantzean, Denb-ekin batzen den Boz burua phi-tasun interpretagaitzik gabea bada, absolutibo komunztadura gisa azaleratuko dira Denb-ren phi-tasunak. Inakusatiboetan berdin gertatzen dela pentsa genezake.

⁹ Berrok et al.-ek (2018) aditz laguntzaileen txandakatzea Boz buruaren D tasunarekin lotu zuten. Boz buruak D tasuna duenean, hau da, espezifikatzaile gunean argumentu bat sartzeko aukera duenean, **edun* aukeratzten da; D tasunik ez duenean, ordea, *izan*. Lan honetan, Boz buruaren D tasuna phi-tasun interpretagaitzak izatearekin ordezkatu dugu. Izan ere, inpertsonaletan Boz buruak badu argumentu bat espezifikatzaile gunean. Alabaina, Boz buru horrek argumentu bat espezifikatzaile gunean izan arren, ezin du phi-tasunik balioztatu, horretarako beharrezkoak diren phi-tasun interpretagaitzak falta dituelako.

Laburbilduz, proposatzen dugun analisi sintaktikoak euskarazko inpertsonalen ezau-garri nagusiak azalduko lituzke. Alde batetik, Boz buruaren defektibotasunak kanpo argumentu implizituaren izaera arbitrarioa azalduko luke, bere izaera berezia dela eta, buru honek ezinbestean [+gizaki] gisa interpretatu behar diren *pro* izenordain isilak baino ezin baititu gaineratu eratorpenean. Beste alde batetik, predikatu iragankorrekin osatutako inpertsonaletan jokoan dauden bi argumentuak Denb buruarekin komunztadura egin beharra ere azaltzen du Boz buruaren defektibotasunak. Hortaz, kanpo argumentuaren pertsona baldintzaz gain, barne argumentuaren pertsona murriztapena ere azaltzen du gure proposamenak, baita inpertsonalek perpaus inakusatio zein iragankorrekiko erakusten dituzten antzekotasun zein desberdintasunak ere. Orobat, proposamen honek erakusten du inpertsonaletako barne argumentuaren pertsona murriztapena ditransitiboetako PKMren oso antzekoa dela. 5. atalean ikusiko dugunez, gainera, antzekotasun hori ez da murriztapena bera sortzen duen harreman sintaktikoan bakarrik islatzen, berau saihesteko balia daitekeen estrategiaren oinarria berbera baita batean zein bestean: numerazioan tasun interpretagaitzak gaineratuz, kasua erkatu ezinik geratu den barne argumentuari kasua zilegiztatzeko aukera ematea (Rezac, 2011).

5. PERTSONA MURRIZTAPENAK BADU BERE SAIHESBIDEA

3. atalean ikusi dugunez, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak ezin dira egitura inpertsonaletan agertu, ez behintzat hirugarren pertsonakoak bezala absolutibo kasu eta komunztadurarekin. Atal honetan erakutsiko dugu badela modu bat lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak egitura inpertsonaletan agertzeko. Izan ere, inpertsonaletan, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak absolutiboz markatu ezin badira ere, datiboz marka daitezke (Berro et al., 2022; Fernández & Berro, 2021; Hualde, 1988; Ortiz de Urbina, 1988, 2003, 2011-2019; Ortiz de Urbina & Fernández, 2016; Rezac, 2009a, 2016). Gogora ditzagun 1. atalean eman ditugun (8)ko adibideak, beheko (29)ko adibideetan errepikatzen ditugunak.

- (29) a. Ondo ikusten zait hortik?
 b. Ez zaizu ezagutu ere egiten orrazkera berri horrekin!

(29)ko adibideetan, *ikusi* (29a) eta *ezagutu* (29b) predikatu iragankorrekin osatutako egitura inpertsonalak jasotzen dira. *Izan* aditz laguntzaile iragangaitza hautatzen da batean zein bestean, baina orain arteko adibideetan ez bezala, barne argumentua –kasu honetan, isilean dagoena– datiboz markatuta ageri da: lehen pertsona singularreko datibo komunztadura eragiten du lehenbizikoan (29a), eta bigarren pertsona singularreko datibo komunztadura bigarreanean (29b). Beraz, datibodun inpertsonala orain arte aztertu dugun egitura inpertsonalaren parekoa da neurri batean: argumentu biko predikatuekin osatzen den arren, iragangaitzetan bezala argumentu bakarra azaleratzen da morfologikoki, eta hautatzen den aditz laguntzailea bera ere iragangaitza da. Nolanahi ere, egitura inpertsonal arruntetan ez bezala, datibodun inpertsonaletan barne argumentua ez da absolutiboz markatzen, datiboz baizik –ez da hori euskara

bezalako hizkuntza ergatibo batean berez espero izatekoa dena, hizkuntza ergatiboetan absolutiboz markatzen baitira argumentu bakarreko egiturak–.

Atal honetan, datibodun egitura inbertsonal honen nondik norakoak arakatuko ditugu. 5.1 atalean, Hegoaldeko zenbait euskalkitan eta euskara batuan jaso ditugun hainbat adibide emango ditugu. 5.2 atalean, halako egiturek Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko (OMB) erakusten duten antzekotasunaz eztabaidatuko dugu. Pertsonari lotutako datibo markapena erakusten dute batak eta besteak, eta guk dakigula behintzat Hegoaldeko hizkeretara mugatzen dira biak. Azkenik, 5.3 atalean, gure proposamen sintaktikoak datibodun inbertsonal hauek nola azaltzen dituen erakutsiko dugu. 4. atalean azaldu dugun bezala, kanpo argumentuak Denb buruarekin [pertsona] tasunetan egiten duen komunztadura harremanak lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak [pertsona] tasunak erkatu ezinda, eta beraz, kasua zilegiztatu gabe uzten ditu. Bada, atal honetan azalduko dugu numerazioan tasun interpretagaitzak gehituz gero, tasun horiek buru funtzional gisa gaineratzen direla eratorpen sintaktikoan (Rezac, 2011), eta ondorioz, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuek buru funtzional horrekin komunztadura egiteko aukera izan dezaketela, eratorpenari aurrera egiteko bidea emanez. Halaxe gertatzen da ditransitiboetako PKMn ere. PKM lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak kasua zilegiztatu ezinda geratzen direlako sortzen da eta argumentu hauei kasua zilegiztatzeko aukera ematen zaienean konpontzen da (Rezac, 2007, 2009b, 2011). Badirudi, beraz, inbertsonaletako pertsona murriztapenaren jatorria ez ezik, bera saihesteko estrategia saihezbidea ere ditransitiboetako PKMrekin pareka daitekeela.

5.1. Datibodun inbertsonalak: zenbait adibide

Gure ustez behintzat, datibodun inbertsonalak nahiko ohikoak dira Hegoaldeko euskalkietan, bai mendebalekoan, bai erdialdekoan baita euskara nafarrean ere. Nolanahi ere, muga dialektalak gorabehera, era honetako egiturak euskalkiez harago ere jasotzen direla erakutsi nahiko genuke jarraian. (30)eko adibideetan jaso ditugun perpau-sak, esaterako, euskara batuan emanak dira, eta egitura inbertsonala izanagatik ere, datiboz markatuta agertzen da barne argumentua. Kontuan hartu behar da, gainera, datibodun inbertsonala [+gizaki] interpretazioa duten hirugarren pertsonako barne argumentuetara ere zabaltzen dela, (30b) eta (30c) adibideetan ikus daitekeenez, baita berez bizigabe izan arren pertsonifikazioaren ondorioz [+gizaki] interpretazioa izan dezaketen horietara ere (30d).

- (30) a. Zer duzu, baina gaur triste ikusten zaizu.
(Mikel Urdangarin, 2002, *Heldu artean*, Gaztelupeko ahotsak)
- b. Alice ez zen horrelakoa, baina azkarra zen eta edozertara adaptatzeko gogotsu ikusten zitzaion.
(Katixa Agirre, 2018, 69. or., *Anek ez dute*, Elkar)
- c. Inoiz baino beteago ikusten zaizu kanpotik.
(Rolán Garcés, 2018, *Oinutsik*, Gor)
- d. Handi ikusi zaio Athletici zelaian, eta txiki utzi du Bartzelona.
(Berria, Perfekzioaren mugan, 2021/01/18)

Horrez gain, *Goenkale* corpusean (Euskara Institutua, 2011) ere aurkitu ditugu era honetako adibide batzuk¹⁰. Euskara batuan egindako telesaila izan zen *Goenkale*, baina jakina, bertan antzetzutako egoerak informalak izan ohi ziren sarri, lagunartekoak. Hori dela eta, bilaketa azkar bat eginda erraz aurkitu ditugu corpus horretan *ikusten zait*, *ikusten zaizu* eta *ikusten zaio* bezalakoak. Lehendabizikoaren agerraldi bakararra aurkitu badugu ere, bigarrenaren bost aurkitu ditugu, eta hirugarrenaren hogeitabi. Bilaketa mugatua izan da, jakina, eta lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako ize-nordainen artean singularrekoak bakarrik bilatu ditugu. Bilatutako aditza ere bakarra izan da, *ikusi*, eta betiere aspektu burutugabea. Hona hemen lehen (31a), bigarren (31b) eta hirugarren (31c) pertsonako datibodun barne argumentuak erakusten dituzten zenbait adibide.

- (31) a. Azken egunotan, pittin bat desberdin ikusten zait.
(1027. atala, *Errudunaren bila*, sek. 9, Aitor)
- b. Aldatuta ikusten zaizu.
(118. atala, *Umeen negarra*, sek. 10, Leonor)
- c. Gainontzean ere, jator ikusten zaio... Ginarena ere gainditu du... Hura Lasatarra da gero...
(194. atala, *Usteak ustel*, sek. 12, Josemari)

Horrenbestez, euskalki edo herri hizkeretan aurkitzeaz gain, euskara batuan ere aurki daitezke datibodun inpertsonalak, lagunarteko testuinguru komunikatiboetan bereziki. Izan liteke, beraz, geografikoki mugatutako fenomenoak izan beharrean, erre-gistroari lotutakoa izatea. Izan ere, *Goenkale* corpusean ez bezala, zaila egin zaigu euskara batu jasoagoko agerraldiak biltzen dituzten *Eguno Testuen Corpora (ETC)* (Sarasola et al., 2021) edo *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)* (Sarasola et al., 2001-2007) bezalako corpusetan halako egiturak aurkitzea (Berro et al., 2022).

5.2. Osagarrien Markapen Bereizgarriarekiko lotura

Euskarak (zehazki esanda, Hegoaldeko euskarak) badu hizkera informalean erabiltzen den antzeko beste egitura bat ere, Osagarrien Markapen Bereizgarria (OMB) (Aisen, 2003; Bossong, 1991) deritzona, hain zuzen ere (Fernández & Rezac, 2010, 2016; Mounole, 2012; Odria, 2014, 2017). (32)ko adibideetan ikus daitekeenez, datibodun inpertsonalean bezala (32a), OMBdun egituretan ere (32b) gizaki (eta normalean zehaztu) diren osagarriek –lehen eta bigarren pertsonako izenordainek bereziki– datibo markapena jaso ohi dute, kanonikoki dagokien absolutiboaren ordez (32c).

- (32) a. Gaur triste ikusten zaizu (zuri).
b. Gaur triste ikusten dizut (nik) (zuri).
c. Gaur triste ikusten zaitut (nik) (zu).

10 *Goenkale* ETB1en 1994 eta 2015 artean emititu zen euskarazko telesaila izan zen, Pausokak eta EiTbK ekoitzia. *Goenkale* corpusak 1994 eta 2010eko ekainera bitartean eman ziren ataletako testuak biltzen ditu, 11 milioi hitz guztira.

Bai OMBdun egituran eta bai datibodun inpertsonalean, [pertsona] tasunari lotutako barne argumentuek datibo markapena erakusten dute, eta ez euskara bezalako hizkuntza ergatiboetan osagarriek kanonikoki jaso ohi duten absolutiboa. Orobat, biek erakusten dute biziduntasunaren arabera muga argia. OMBri dagokionez, ez dago datiboz marka daitekeen osagarri bizigaberik, ezta egitura inpertsonaletan datiboz marka daitekeen barne argumentu bizigaberik ere.


Badira, hala ere, fenomeno bat eta bestea bereizten dituzten zenbait alderdi. Alde batetik, inpertsonalak itxuraketa iragangaiztua dauka: argumentu bakarra izan ohi du agerian eta *izan* aditz laguntzailea hautatzen da. OMBdun egituretan, berriz, kanpo zein barne argumentua, biak egon daitezke agerian eta, gainerako egitura iragankorretan bezala, **edun* da hautatzen den aditz laguntzailea. Bestalde, OMBdun egituretan kanpo argumentuak ez du inolako betekizunik erakusten. Isilean edo agerian egoteaz gain, biziduna zein bizigabea izan daiteke, ez da ezinbestean [+gizaki] gisa interpretatu behar. Beste alde batetik, fenomenoaren erabilerari dagokionez ere badira aldeak. OMB hautazkoa da hiztun askorentzat (gehienentzat ez esatearren). Datibodun inpertsonalak onartzen dituzten hiztunen artean, ordea, guk dakigula behintzat datiboa baino ez da posible lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuekin, baita normalean hirugarren pertsonako gizakiekin ere. Hautazkotasuna, izatekotan, hirugarren pertsonako barne argumentuek erakusten dute, hauek datiboz zein absolutiboz ager daitezke eta –gogoratu hautazkotasun hori hirugarren pertsonako barne argumentuak [pertsona] tasunak izatearen arabera dela: [pertsona] tasunak gramatikalizatzen direnean, barne argumentuak pertsona murriztapena jasango du, eta orduan agertuko da berau saihesteko estrategia gisa datibo markapena–. Horrez gain, OMBren kasuan lehen eta bigarren pertsonako osagarriak dira bereziki datiboa jasotzen dutenak, fenomenoak askoz ere murriztagoa da hirugarren pertsonako osagarriekin. Datibodun inpertsonaletan, berriz, ez dago halako bereizketarik; *Goenkale* corpusean aurkitu ditugun adibide gehienak, esaterako, hirugarren pertsonakoak dira. Azkenik, fenomenoaren hedadura-ri dagokionez ere, aipatzekoa da datibodun inpertsonalak onartzen dituzten hainbat hiztunek ez dutela OMB onartzen. OMB oso fenomeno estigmatizatua da euskaraz, eta datibodun inpertsonalekin ez bezala, OMBrekin hiztun askok daukate gramatikari dagokionez *okerreko egitura* erabiltzearen ustea. Desberdintasun hauek guztiak kontuan hartuta, inpertsonaletako datiboaren analisi sintaktikoa OMBrekiko desberdina izan beharko litzatekeela ondorioztatzen dugu. Egitura iragankorretako OMB ez bezala, inpertsonaletako datiboa balizko egitura ez-gramatikal bat saihestetik dator, Forma Logikoaren elkargunearan eta sintaxiaren artean gauzatzen den konpontze estrategia batetik (ing., *repair strategy*) (Rezac, 2011).

5.3. Datiboa nondik? Analisi sintaktikoa

Proposatu dugun analisi sintaktikoaren arabera, kasua zilegiztatu ezinda geratzen direlako sortzen da absolutibodun lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak dituzten inpertsonalen ez-gramatikaltasuna. Ildo beretik jarraituz, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak datibo markapenarekin agertzeko aukera, argumentu hauek beste buru funtzional batekin komunztadura egitetik datorrela proposatuko dugu jarraian. Rezacek (2007, 2009b, 2011) erakutsi bezala, ditransitiboetako PKM

lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak kasua zilegiztatu ezinda geratzen direnean sortzen da, eta era berean, kasua zilegiztatzeko aukera daukatenean konpon-tzen da. Gauza bera gertatuko litzateke inpertsonaletan ere. Rezacen ildoari jarraituz, eratorpena huts egitera doanean numerazioan tasun interpretagaitzak gehitu daitezkeela onartzen dugu. Tasun interpretagaitz horiek buru funtzional gisa azaleratuko dira sintaxian, eta beraz, numerazioan tasun horiek txertatzeak sintaxian komunztadura egiteko buru gehigarri bat sartzea ekarriko du. Indarrean jartzen den buru funtzional horrek kasua zilegiztatu gabe dagoen argumentuarekin komunztadura egin ahal izango du, eta ondorioz, eratorpenak aurrera egin ahal izango du¹¹. Ditrantsitiboetan buru funtzional horrek zehar osagarria zilegiztatuko luke euskara eta frantsesa bezalako hizkuntzetan, eta osagarri zuzena georgiera bezalakoetan (ikus halaber Béjar & Rezac, 2003). Batean zein bestean zehar osagarriak eta osagarri zuzenak buru banarekin egingo lukete komunztadura, eta [pertsona] tasunetan komunztadura egiteko lehia sai-hestuko litzateke zuzenean.

Inpertsonaletan lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuak zilegiztatzen di-tuen buru horri K deituko diogu¹². Horrenbestez, (33)ko zuhaitz sintaktikoan ikus daitekeenez, [pertsona] tasunak erkatu behar dituzten barne argumentu horiek K buruarekin egingo dute komunztadura, eta horrek kanpo eta barne argumentuak buru funtzional beregainekin komunztadura egitea ahalbidetuko du, iragankor arruntetan gertatzen den bezala. Hori dela eta, kanpo argumentuak Denb buruarekin [pertsona] tasunak erkatzeak ez du inolako eraginik izango barne argumentuan, eta egitura ira-gankor arruntetan gertatzen den bezala, ez da inolako pertsona murriztapenik sortuko.



11 Ildo beretik jarraituz, Kalinek (2018) eta Levinek (2019) era honetako saihebidetarik aurretiaz sintaxian indarge zegoen hautazko buru funtzional bat indarrean jartzetik datorrela proposatzen dute. Teorikoki era batera zein bestera formulatu, funtsean kasua zilegiztatu ezinda geratu den argumentuarentzat kasua zilegiztatzeko aukera dakar konpontze estrategiak eta hori da guri datibodun inpertsonalak azaltzeko axola zaiguna.

12 Inpertsonaletako barne argumentuari datiboa esleitzen dion K buruak egiturazko kasua irudikatuko luke. Era horretan, Aplikatibo (Apl) edo Postposizio (P) buruek esleituiko luketen berezko datibo kasutik bereziko litzateke, iragankorretako OMBren datiboa bezala (Odría, 2017, 2019).

Hirugarren pertsonako barne argumentuek ere badute inpersonaletan datiboz markatuta agertzeko aukera. Lehen eta bigarren pertsonakoek bezala, datiboz markatuta agertzen diren hirugarren pertsonako barne argumentu horiek [persona] tasunak erkatu behar dituzte. Izan ere, lehen eta bigarren pertsonako argumentuetan gertatzen den bezala, hirugarren pertsonakoetan ere posible da [persona] tasunak gramatikalizatzea (Richards, 2008). Hala, dena delako argumentua gizakia delako [persona] tasunak gramatikalizatzen badira, argumentuak tasun horiek erkatu beharra izango du, eta kanpo argumentuak Denb buruarekin [persona] tasunetan komunztadura egin izanak barne argumentuan pertsona murriztapena eragingo du –kasu horretan, bezaz, barne argumentuaren murriztapena ez litzateke lehen eta bigarren pertsonakoetara mugatuko, gizaki gisa interpretatzen diren argumentu guztiei eragingo lieke eta (Ormazabal & Romero, 2007)–. Egoera hori saihesteko sartuko litzateke K buru funtzionala eratorpenean, eta ondorioz, hirugarren pertsonako gizaki argumentu horiek datibo kasu eta komunztadurarekin agertuko lirateke. Oso bestela, [persona] tasunak gramatikalizatzen ez direnean, hirugarren pertsonako argumentuek ez dute tasun horiek erkatu beharrik izango, eta beraz, inpersonaletan kanpo argumentuak Denb buruarekin komunztadura egin izanak ez du inolako murriztapenik sortuko. Horregatik dira posible hirugarren pertsonako barne argumentuak absolutibo markapenarekin. Aldiz, lehen eta bigarren pertsonako argumentuek ezinbestean egin behar dute komunztadura [persona] tasunetan, interpretatuak izango badira numeroaz gain zein pertsonatakoak diren jakitea ezinbestekoa baita. Da hauentzat datiboa bide bakarra; horregatik ez dute hirugarren pertsonakoek bezala absolutiboarekin agertzeko aukerarik.

Horrenbestez, eratorpenean K buru funtzional gehigarria sartuz saihesten da inpersonaletako pertsona murriztapena. Hori gertatzen denean, barne argumentuak [persona] tasunak ez ezik [numero] tasunak ere buru funtzional horrekin erkatzen dira, eta beraz, Denb buruaren [numero] tasunak erkatu gabe geratuko dira. Argumentu jakin batekin komunztadura egin ezean, buru funtzionalen [numero] tasunak besterik ezean singular gisa balioztatzen direla onartzen dugu, berau baita numeroari dagokionez morfologikoki balio ez-markatua (ikus, besteak beste, Kramer, 2014 eta Preminger, 2014). Horregatik ageri da datibodun inpersonaletan hirugarren pertsona singularreko absolutibo komunztadura barne argumentua singularra (34a) zein plurala (34b) izan.

- (34) a. Pozik ikusten zaizu (zuri).
 b. Pozik ikusten zaizue (zuei).

(34)ko adibideek berriz ere erakusten dute kanpo argumentuak barne argumentuan duen eragina [persona] tasunetara mugatzen dela [numero] tasunek ez dute inolako zeresanik honetan guztian.

6. ONDORIOAK

Lan honetan, euskarazko inpersonalek pertsonari dagokionez erakusten dituzten murriztapenak arakatu ditugu: kanpo argumentuak erakusten duen pertsonari lotutako baldintza batetik, eta barne argumentuak erakusten duen pertsona murriztapena

bestetik. Morfologikoki iragangaitz gisa azaleratzen diren arren, predikatu iragankorrekin osatutako inpertsonaletan kanpo argumentua sintaktikoki indarrean dagoela erakutsi dugu. Zehazki, inpertsonaletako kanpo argumentu inplizitua [+gizaki] interpretazioa izan behar duen *pro* izenordain isila dela proposatu dugu, egitura iragankorretako kanpo argumentuak bezala Boz buruaren espezifikatzaile gunean kokatzen dena. Nolanahi ere, iragankorretakoa ez bezala, inpertsonaletako Boz burua defektiboa dela ondorioztatu dugu, ez baita argumentuekin komunztadura eginez kasua zilegiztatzeko gai. Hori dela eta, egitura inpertsonaletan kanpo eta barne argumentuek Denb buru funtzionalarekin egin behar izaten dute komunztadura, eta eratorpenean gorago egonik, kanpo argumentuak oztopatu egiten du barne argumentuak [pertsona] tasunetan komunztadura egin ahal izatea. Horrek lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuek komunztadura egitea eragotziko du, azken hauek kasua zilegiztatu ahal izateko [pertsona] tasunak erkatzeko beharra baitute. Horrez gain, ditransitiboetako Pertsona Kasuaren Murriztapenean gertatzen den bezala, barne argumentuaren pertsona murriztapenak nolabaiteko saihebideta duela erakutsi dugu, barne argumentuaren datibo markapenarekin islatzen dena. Saihebideta hori numerazioan tasun interpretagaitzak gehituz gauzatzen da, tasun horiek buru funtzional gisa azaleratzen baitira sintaxian (Rezac, 2011). Buru funtzional gehigarri horrekin komunztadura eginez jasotzen dute, beraz, lehen eta bigarren pertsonako barne argumentuek eratorpenean aurrera egiteko aukera ematean dien datibo kasua.

7. ERREFERENTZIAK

- Adger, D. & Harbour, D. (2007). Syntax and syncretism of the Person Case Constraint. *Syntax*, 10, 2-37.
- Agirre, K. (2018). *Amek ez dute*. Erein.
- Aissen, J. (2003). Differential object marking: iconicity vs. economy. *Natural Language and Linguistic Theory*, 21, 435-483. <https://doi.org/10.1023/A:1024109008573>
- Albizu, P. (1997a). *The syntax of person agreement*. Eskuizkribua. University of Southern California.
- Albizu, P. (1997b). Generalized person-case constraint: a case for a syntax-driven inflectional morphology. *ASJU*, 40, 1-33.
- Albizu, P. (1997c). En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera. *Interlingüística*, 8, 13-18.
- Albizu, P. (2001). Datibo sintagmaren izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarrizko zenbait datu. In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement* (49.-69. or.). UPV/EHU.
- Aldridge, E. (2004). *Ergativity and word order in Austronesian languages* [Argitaratu gabeko doktore tesia]. Cornell University.
- D'Alessandro, R. (2004). *Impersonal constructions* [Doktore tesia, University Stuttgart]. OPUS. <https://elib.uni-stuttgart.de/handle/11682/5252>
- Alexiadou, A., Anagnostopoulou, E. & Schäfer, F. (2006). The properties of anticausatives crosslinguistically. In M. Frascarelli (arg.), *Phases of interpretation* (187.-211. or.). Mouton.

- Alexiadou, A. & Schäfer, F. (2006). Instrument subjects are agents or causers. In D. Baumer, D. Montero & M. Scanlon (arg.), *Proceedings of the 25th West Coast Conference on Formal Linguistics* (40.-48. or.). Cascadilla.
- Anagnostopoulou, E. (2003). *The syntax of ditransitives. Evidence from clitics*. Mouton de Gruyter.
- Béjar, S. & Rezac, M. (2003). Person licensing and the derivation of PCC effects. In A. T. Pérez-Leroux & Y. Roberge (arg.), *Romance linguistics: Theory and acquisition* (49.-62. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.244.07bej>
- Berro, A., Oihartzabal, B. & Fernández, B. (2018). Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz eratoritzen. *Fontes Linguae Vasconum*, 126, 99-122. <https://doi.org/10.35462/FLV126.4>
- Berro, A. & Fernández, B. (2019). (Euskal) bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak. In I. Laka (arg.), *Hitzak sarean. Pello Salabururi esker onez* (39.-50. or.). UPV/EHU.
- Berro, A., Odria, A. & Fernández, B. (2022). Person matters in impersonality. *Syntax*, 25(1), 1-41. <https://doi.org/10.1111/synt.12230>
- Bhatt, R. & Pancheva, R. (2005). Implicit arguments. In M. Everaert & H. Van Riemsdijk (arg.), *The Blackwell companion to syntax*, 3. lib. (558.-588. or.). Blackwell Publishing.
- Bossong, G. (1991). Differential Object Marking in Romance and beyond. In D. Wanner & D. A. Kibbee (arg.), *New analyses in Romance linguistics* (43.-171. or.). John Benjamins.
- Brettschneider, G. (1979). Typological characteristics of Basque. In F. Plank (arg.), *Ergativity. Toward a theory of grammatical relations* (371.-384. or.). Academic Press.
- Chierchia, G. (2004). A Semantics for unaccusatives and its syntactic consequences. In A. Alexiadou, E. Anagnostopoulou & F. Schäfer (arg.), *The unaccusativity puzzle. Explorations of the syntax-lexicon interface* (22.-59. or.). Oxford University Press.
- Chomsky, N. (1986). *Knowledge of language: its nature, origin and use*. Praeger.
- Chomsky, N. (2000). Minimalist inquiries: The framework. In R. Martin, D. Michaels & J. Uriagereka (arg.), *Step by step: Essays on Minimalist Syntax in honor of Howard Lasnik* (89.-155. or.). The MIT Press.
- Chomsky, N. (2001). Derivation by phase. In M. Kenstowicz (arg.), *Ken Hale: A life in language* (1.-52. or.). The MIT Press.
- Coon, J. (2010). *Complementation in Chol (Mayan): A theory of split ergativity* [Doktore tesia, MIT]. Dspace@MIT. <https://dspace.mit.edu/handle/1721.1/62409>
- Duguine, M. (2010). *Argumentu isilak eta hizkuntz aldakortasuna*. UEU.
- Duguine, M. (2013). *Null arguments and linguistic variation. A minimalist analysis of pro-drop* [Argitaratu gabeko doktore tesia]. UPV/EHU & Université de Nantes.
- Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika. Lehen urratsak II (EGLU II)*. Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. (2011). *Goenkale Corpora*. UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/goenkale/>
- Fernández, B. & Berro, A. (2021). Basque impersonals in comparison. *Linguistics*. <https://doi.org/10.1515/ling-2020-0057>

- Fernández, B. & Ortiz de Urbina, J. (2010). *Datiboa hiztegian*. UPV/EHU.
- Fernández, B. & Rezac, M. (2010). Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdaztea: *ari nai diyot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean. *ASJU*, 52, 113-149.
- Fernández, B. & Rezac, M. (2016). Differential Object Marking in Basque varieties. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (93.-139. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.05fer>
- Hualde, J. I. (1988). Case assignment in Basque. *ASJU*, 22(1), 313-330.
- Kalin, L. (2018). Licensing and Differential Object Marking: The view from Neo-Aramaic. *Syntax*, 21(2), 112-159. <https://doi.org/10.1111/synt.12153>
- Kramer, R. (2014). Clitic doubling or object agreement: The view from Amharic. *Natural Language & Linguistic Theory*, 32, 593-634. <https://doi.org/10.1007/s11049-014-9233-0>
- Kratzer, A. (1994). *The event argument and the semantics of voice*. Eskuizkribua. University of Massachusetts at Amherst.
- Kratzer, A. (1996). Severing the external argument from its verb. In J. Rooryck & L. Zaring (arg.), *Phrase structure and the lexicon* (Studies in Natural Language and Linguistic Theory, 33. lib.) (109.-137. or.). Kluwer Academic Publishers.
- Laka, I. (1993). The structure of Inflection: a case study in X^o syntax. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics* (Current Issues in Linguistic Theory, 105) (21.-70. or.). John Benjamins.
- Landau, I. (2010). The explicit syntax of implicit arguments. *Linguistic Inquiry*, 41(3), 357-388. https://doi.org/10.1162/LING_a_00001
- Legate, J. (2002). *Walpiri: Theoretical implications* [Doktore tesia, MIT]. Dspace@MIT. <https://dspace.mit.edu/handle/1721.1/8152>
- Legate, J. (2008). Morphological and abstract case. *Linguistic Inquiry*, 39(1), 55-101. <https://doi.org/10.1162/ling.2008.39.1.55>
- Levin, T. (2019). On the nature of differential object marking. *Natural Language and Linguistic Theory*, 37(1), 167-213. <https://doi.org/10.1007/s11049-018-9412-5>
- Levin, B. & Rappaport Hovav, M. (1995). *Unaccusativity: At the syntax-lexical semantics interface*. Cambridge (MA), the MIT Press.
- Massam, D. (2002). Fully internal case: Surface ergativity can be profound. In A. Rackowski & N. Richards (arg.), *Proceedings of AFLA 8: The Eighth Meeting of the Austronesian Formal Linguistics Association* (MIT Working Papers in Linguistics, 44) (185.-196. or.). MIT.
- Mendikoetxea, A. (2008). Clitic impersonal constructions in Romance: Syntactic features and semantic interpretation. *Transactions of the Philological Society*, 106(2), 290-336. <https://doi.org/10.1111/j.1467-968X.2008.00210.x>
- Mounole, C. (2012). The evolution of transitive verbs in Basque and the emergence of dative-marked patients. In G. Authier & K. Haude (arg.), *Ergativity, valency, and voice* (335.-379. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110227734.355>
- Odria, A. (2014). Differential object marking and the nature of dative case in Basque varieties. *Linguistic Variation*, 14(2), 289-317. <https://doi.org/10.1075/lv.14.2.03odr>
- Odria, A. (2017). *Differential object marking in Basque syntax* [Doktore tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/29766>

- Odria, A. (2019). DOM and datives in Basque: not as homogeneous as they might seem. *Linguisticae Investigationes*, 42(1), 8-31. <https://doi.org/10.1075/li.00027.odr>
- Ormazabal, J. & Romero, J. (2007). The Object Agreement Constraint. *Natural Language and Linguistic Theory*, 25, 315-347. <https://doi.org/10.1007/s11049-006-9010-9>
- Ormazabal, J. & Romero, J. (2019). The formal properties of non-paradigmatic *se*. *Bo-realis: An International Journal of Hispanic Linguistics*, 8, 55-84. <https://doi.org/10.7557/1.8.1.4704>
- Ortiz de Urbina, J. (1988). Interferentzia sintaktiko berezi batez. In *II. Euskal Mundu-Biltzarra, Euskara Biltzarra. I. atala: Hizkuntz deskribapena*. Eusko Jaur-larritza.
- Ortiz de Urbina, J. (2003). Impersonal clauses. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (572.-591. or.). Mouton de Gruyter.
- Ortiz de Urbina, J. (2006). Old Basque (medio)passives. *ASJU*, 40, 763-786.
- Ortiz de Urbina, J. (2011-2019). Aditz inbertsonalak. In P. Salaburu, I. Sarasola & P. Goenaga (arg.), *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. http://www.ehu.eus/seg/morf/5/12/2/2#predikatu_inbertsonalak/
- Ortiz de Urbina, J. & Fernández B. (2016). Datives in Basque bivalent unergatives. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (67.-93. or.). John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/lfab.13.04ort>
- Preminger, O. (2014). *Agreement and its failures*. The MIT Press.
- Rezac, M. (2007). Escaping the Person Case Constraint: referential computation in the phi system. *Linguistic Variation Yearbook*, 6, 97-138. <https://doi.org/10.1075/livy.6.06rez>
- Rezac, M. (2008). Phi-Agree and theta-related Case. In D. Harbour, D. Adger & S. Béjar (arg.), *Phi-theory: phi-features across interfaces and modules* (83.-130. or.). Oxford University Press.
- Rezac, M. (2009a). Person restrictions in Basque intransitives. *Lapurdum*, 13, 305-322.
- Rezac, M. (2009b). On the unifiability of repairs of the Person Case Constraint: French, Basque, Georgian, and Chinook. *ASJU*, 43(1/2), 769-790.
- Rezac, M. (2011). *Phi-features and the modular architecture of language*. Springer.
- Rezac, M. (2016). Gaps and stopgaps in Basque verb finite agreement. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (139.-192. or.). John Benjamins.
- Rezac, M., Albizu, P. & Etxepare R. (2014). The structural ergative of Basque and the theory of Case. *Natural Language and Linguistic Theory*, 32(4), 1273-1330. <https://doi.org/10.1007/s11049-014-9239-7>
- Richards, M. (2008). Defective Agree, case alternations, and the prominence of person. *Linguistische Arbeits Berichte*, 86, 137-162.
- Rijk, R. P. G. de. (2008). *Standard Basque. A progressive grammar*. MIT.
- Rodet, A. (1992). Construccions amb lectura arbitrària en basc. *ASJU*, 26, 145-179.
- Sarasola, I., Salaburu, P. & Landa, J. (2001-2007). *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG). UPV/EHU, Euskara Institutua. <http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
- Sarasola, I., Salaburu, P. & Landa, J. (2021). *Eguno testuen Corpusa* (ETC). UPV/EHU, Euskara Institutua. <https://www.ehu.eus/etc/>

- Taraldsen, K. T. (1995). On agreement and nominative objects in Icelandic. In H. Haider, S. Olsen & S. Vikner (arg.), *Studies in comparative Germanic syntax* (207.-237. or.). Kluwer.
- Urdangarin, M. (2002). Oihana. *Heldu artean*. Gaztelupeko ahotsak. <https://www.badok.eus/euskal-musika/mikel-urdangarin/heldu-artean/>
- Urrestarazu, I. (2019). *Nire barruko Setatsua: (euskal) boza eta erdiko egiturak* [Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana]. UPV/EHU.
- Woolford, E. (2006). Lexical case, inherent case, and argument structure. *Linguistic Inquiry*, 37(1), 111-130. <https://doi.org/10.1162/002438906775321175>

